

SCORE PROIEKTU EUROPARRAK PRESTAKUNTZA ESKOLA ESTREINATZEN DU

Posted on 02/06/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Arrisku klimatikoa, arintzea eta egokitzea](#), [Formación](#), [SCORE](#)

SCORE proiektuak bere [Prestakuntza Eskolaren I. Edizioa](#) ospatuko du ekainaren 6tik 8ra bitartean, Europako Aste Berdea – EU Green Week 2023 ekimenaren barruan. Ekitaldiaren [agendak](#) jarduera ugari biltzen ditu, bai online, bai living lab-ak (CCLL) dauden kostaldeko lurraldeetan.

Online hitzaldien lehen egunean, gaztelaniazko mahai-inguru bat izango da, NAIDERek moderatua. Bertan, Vilanova i la Geltrú, Oarsoaldea eta Benidormeko CCLLen klima-mehatxu nagusiak aurkeztuko dira, eta sentsoreak ezartzeak izan dezakeen eragina partekatuko da. Horretarako, Ignacio Toledo Sepulcre (Universitat d'Alacant), Mar Riera Spiegelhalder (ENT) eta Xabier Sesma Korta ([Oarsoaldea Garapen Agentzia](#)) bilduko dira mahaian.

Online hitzaldietarako [izen-ematea](#) zabalik dago.

